

# Transmisio-kanpaina Eibarren

## Junkal Txurruka

### **Historia laburra** Zer izan zen

Transmisio-kanpaina 1989. urtean Gipuzkoako zenbait udaletxetako euskara-teknikariak bildurik sorturiko kanpaina berezia izan zen.

### **Nori zuzendua**

Kanpaina berezi hau umeak “B” eta “D” ereduetan zituzten guraso erdaldun eta euskaldun alfabetatugabeei zuzendua zegoen.

### **Arrazoia eta helburua?**

Arrazoia, eta hortik datorkio izena kanpainari, transmisiorik eza izan zen. Hau da, beste ohitura eta gauza askorekin pasatzen den bezala, hizkuntza transmititu egiten da, gurasoengandik seme-alabengana; eta hau gertatzen den bitartean ziurtatua dago hizkuntza baten iraupena; baina ez da horrela gertatzen euskararen kasuan: transmisioa eten egiten da.

Ume askok ez dute euskararen ezagutza gurasoen transmisio bidez jasotzen, eskolaren bidez baizik. Kanpaina honen helburua transmisio hori kasu batzuetan indartu (euskaldun zaharrak) eta beste batzuetan sortzea izan zen.

### **Esperientzia noiz eta non egin zen**

Hemen azaltzen diren ondorio guztiak geure esperientzia propiotik atereak dira. Esperientzia honi Eibarko Udal Euskaltegian eman zitzaion hasiera 1990.eko urtarrilean, eta bertan darraite kanpaina honetatik sorturiko hainbat taldek eta baita geroztik sortu diren guraso-talde berriek ere.

Lantxo hau egiteko datuak lehenengo bi ikasturteetatik ateratakoak dira:  
– Lehen ikasturtea: 1990.eko urtarriletik ekainera.  
– Bigarren ikasturtea: 1990.eko urritik 1991.eko ekainera.

### **Kontutan izandako puntuak eta emandako pausoak** Gurasoen ezaugarriak

Transmisio-kanpainako taldeetan jaso den esperientziak erakusten duenez, ikasle hauek ezaugarri berezi batzuk dituzte. Aurrerago ikusiko duzuen bezala, ezaugarri batzuk lagungarri izango zaizkie euskalduntze-prozesuan; beste batzuk, berriz, oztopatzaile. Dena dela, garbi dago kontutan hartu behar diren ezaugarriak direla.

Guk ikusi ditugun ezaugarriak nabarmenenak hauek izango lirateke:

#### *Ikasketa-maila bajua*

Gehienek hamalau edo hamasei urterekin utzi zioten eskolara joateari, eta harrez gero ez dute kontaktu handiegirik izan eskola-munduarekin, beren seme-alaben bitartez ez bada izan.

### *Ikasteko ohiturarik eza*

Aurrez aipaturiko arrazoientatik ikasle hauen ikasteko ohitura oso eskasa da. Honen ondorioz, euskaltegiratzen direnean, ez dute jakiten eskolan emandakoa nola ikasi, nola asimilatu, zer egin beren ikasketa-prozesua azkartzeko. Horregatik, irakaslearen lana da aholku egokiak ematea eta ikasteko ohitura hori berreskuraraztea edo sortaraztea.

### *Ikasteko errefleju-falta*

Neurri handi batean honen arrazoia adina izaten da: aita-ama gazteak badaude ere, gehiengoa hogeitamar urtetik gorakoa da; eta aspaldian eskolan ibiliak ez direnez, ez dute inolako erreflejurik gauza berriak ikasteko.

Honek esan nahi du eduki berri bat asimilatzeko behin eta berriro errepikatu behar dela klasean, eta baita egunez egun ere.

### *Abstrazio-maila eskasa*

Hizkuntzaren estruktura zein aditz berriren bat sartzerakoan klasean, asko kostatzen zaie lotura bat edo logika bat aurkitzea forma horien artean.

Adibide bat jar dezakegu oso sinplea bada ere:

*Nik ogia <i>dut</i>	*Nik ogiak <i>ditut</i>
*Zuk ogia <i>duzu</i>	*Zuk ogiak <i>dituzu</i>
*Hark ogia <i>du</i>	*Hark ogiak <i>.....</i>

Askok ez lukete jakingo zein den falta den forma, ez baitira konturatu zein lotura dagoen “*dut*” eta “*ditut*”en artean.

Honek asko luzatzen du urratsa, dena banan-banan eman behar zaielako; eta ez eman bakarrik, landu ere bai.

### *Motibapen berezia*

Batetik, oso bizia da motibapen hau; bestetik, nahiko eroso bizi den jendea izanik, arazo edo zailtasun txikienaren aurrean dena bertan behera uzteko gai dira. Hau kontutan izanik, irakasleak psikologo-papera ere egin behar izaten du askotan, kontu handiarekin ibili behar du, inor min ez dezan edo besteen aurrean ebidentzian jar ez dezan.

### *Langileak eta konstanteak dira*

Oso dira langile eta konstanteak.

Irakasleak agindutako lanak inolako kexurik gabe egiten dituzte, bai klasean, bai etxean.

Egunero etortzen dira klasera, egunen batean ezin badira etorri aurrez irakaslea ohartaraziz eta eskolan emango denaz arduratuz.

### *Integratze erraza*

Guraso hauek oso erraz integratzen dira talde hauetan, agian askori etxe-ko bizitzaz gain zirkulu berri bat antolatzeko aukera ematen diolako.

## *Gurasoen helburuak*

Puntu hau benetan da garrantzitsua, aurrekoa hala bada ere. Horregatik, helburuak zehaztu baino lehen, esan beharra dago inoiz eta inola ere ez dela ahaztu behar zeintzuk diren ikasle hauen helburuak, hau ikasle-mota guztiekin egin beharrekoa den arren. Gurasoen helburuei arreta berezia eskaini behar zaie, ondoren aipatuko ditugun arrazoiengatik.

- Guk orain arte izan dugun ikasle goaren artean ez genuen inolako helburu-banaketa egiten; hau da, gure ikasle goaren helburua osoki euskalduntzearena zen. Agian desberdintasunen bat egiten genuen titulua lortu behar zutenen eta ez zutenen artean. Hori dela eta, gure joera, oraindik ere, kolektibo guztien helburuak bateratzekoa da; horregatik, sarritan gogorarazi behar diogu geure buruari talde berezi baten aurrean gaudela.
- “Gurasoen ezaugarriak” atalean aipaturiko ezaugarriak direla eta, helburu hauek zuzenki betetzen ez baditugu, desbideratzerik gabe, porrota ziurra eta azkarra izango da.
- Jende honek euskaltegiarekin eta klaseekin duen obligazio-zentzua oso ahula da; eta porrota bapatekoa izango da. Gainera ikasle hauek betirako galtzeko arriskua dugu.

Ohar hauek kontutan izanik, ikus dezagun zeintzuk diren gurasoen helburuak.

Helburu hauek aztertzerakoan, esperientziak esaten digu, lan hau ongi bete nahi badugu, gurasoak bi multzotan banatu behar ditugula:

### – *Guraso hasiberrien helburuak*

Umearen euskalduntze-prozesuan lagungarri izatea.

Euskararen ezagutza minimo bat izatea, umeak adierazitakoa ulertzeko.

Umeari hainbat gauza euskaraz adierazteko gai izan nahi dute.

Ez dute helburutzat erabat euskalduntzea.

Ez dute helburutzat euskaraz irakurri eta idaztea.

Ez dute helburutzat eguneroko bizitzan erabat euskaraz hitz egitea.

### – *Maila aurreratuagoko gurasoen helburuak*

Mintzamen-maila dexentea lortu nahi dute haurraren ahalik eta hurremanik gehienak euskaraz eduki ahal izateko, eta baita kaleko lagunekin ere.

Entzutezko ulermen ona lortu nahi dute, beren haurrek hitz egiten duten euskara ezezik kalekoa ere ulertzeko.

Entzundakoaren ulermenarekin jarraituz, asko interesatzen zaie telebista ulertzea.

Irakurritakoaren ulermenari dagokionez, berriz, haurrentzako ipuinak ulertu nahi badituzte ere, ez dute alde batera uzten artikuluxka edo euskal egunkaria ulertzeko helburua.

Beraz, azken hauen helburu nagusia erabat euskalduntzea da, beti ere mintzameneko trebetasuna izanik garrantzitsuen.

Aurrez esan denaren arabera, garbi ikus daiteke guraso gehienek euskalduntze-prozesuan ematen den helburuen aldaketa. Aldaketa honen arrazoiak ere nahiko erraz uler daitezke. Ia denak elebakarrak dira eta gainera lehen aipaturiko ikasketa-mailakoak; ez dakite zer den eta zer suposatzen duen bigarren hizkuntza bat ikasteak. Gainera, euskaltegiara badatortuz, ez da euren buruarengatik, haurrengatik baizik; beraz, helburua haurrekin erabat loturik dago. Ikastaro bat egin ondoren, berriz, ikasle hauen ikuspuntua oso da desberdina: euskararekiko kontzientzi maila bat lortu dutela esan daitezke. Ikastaro bat egin ondoren konturatzen dira hizkuntza bat zein sakona den, eta gehienek hizkuntza horren ezagutza osoa lortu nahi dute.

Atal honekin bukatzeko esan beharra dago irakasleak garbi izan behar duela talde hauen %100a ez dela maila sakon batean euskara ikasteko gai izango, berak interes handia badu ere.

#### *Programaketaren ezaugarriak*

##### *Syllabusa*

Esan beharra dago euskaltegi talde orokorretan erabiltzen den syllabusaren eta guraso-taldeetan erabili dugunaren artean ez dagoela alde handirik. Kasurik gehienetan, euskaltegi planean agertzen den syllabusa bera erabiltzen da, progresio bera jarraituz kasurik gehienetan. Dena dela, salbuespen batzuk egiten dira. Adibidez, “aginduzko formak” syllabusa normalean 2. urratsean agertzen dira, baina guk gurasoen taldeetan hizkuntz forma hau aurreratu egin dugu, gure ikasleek eguneroko jardunean asko erabiliko baitute hizkuntz forma hau.

Aipatu berri dugun kasuan hizkuntz forma bat aurreratu egin dugu, alderantzizko moldaketak ere egin direlarik. Adibidez, “aditz lokuzioak” syllabusa normalean 2. urratsaren bukaeran ematen dira; gurasoen taldeetan, berriz, hizkuntz forma hau 3. urratsera pasatzeko erabakia hartu zen, ikasleak hizkuntz forma hori gabe, erabat zuzen ez bada ere, moldatzen baitira.

Aurrez esandako guztiaren ondorio gisa esan daitezke talde berezi hauetan syllabusa hizkuntz formen funtzionaltasunean oinarritzen dela.

##### *Metodologia*

Guraso-talde hauetan euskaltegiaren helburu nagusia ikasleok ordurarte emandako hizkuntz formak erabiliz mintzatzeko gai izatea da, eta baita euren mailako beste batek esaten duena ulertzeko gai izatea ere.

Esan beharra dago talde hauetan irakaslearen papera oso garrantzitsua dela; ikasleek duten hitz egiteko ahalmena eskasa izanik, irakaslearen lana baita jendeari azalpen argiak ematea, jendea hitz egitera animatzea eta taldean giro egokia lortzea, jendea klasean lasai egon dadin. Giro lasai horren barruan ikaslea gehiago ausartuko baita hitz egitera,

eta bere ulermenerako gaitasuna ere areagotu egingo baita. Horrezaz gain, irakaslearen papera gidariarena da. Bere egitekoa da azalpenak modu egoki batean ematea eta ariketak nola aurrera eramán azaltzea. Dena dela, ikaslearen papera ez da pasiboa; esan dezakegu irakasle eta ikasleak ikas-irakasprozesuan parte hartzaile moduan jokatzén dutela.

Talde hauetan ikasleei ez zaie erakusten euren ama-hizkuntzatik euskarara itzultzen. Guk pentsatzen dugu euskal hitz edo esaldi bat bere esanahiarekin elkarlotzea beharrezkoa dela. Hau lortzeko, irakasleak euskal hitz edo esaldi berriren bat aurkeztu nahi duenean, bere esanahia gauza erreal, marrazki edo antzerkitxoren baten bidez erakusten du. Ez du gaztelerara itzultzen besterik gabe. Gaztelerara itzultzea azken errekurtsioa izango du irakasleak.

Ikasleak ahal duen neurrian euskaraz hitz egin behar du. Irakasleak euskaraz hitz egitera bultzatu behar ditu, hau da, euskaraz esan dezatela euskaraz esan dezaketena.

Honen ondoren, adibide gisa, gauza berri bat azaldu behar den klasean jarraitzen diren pausoen berri emango dugu.

- *Lehen pausoa*

Azaldu nahi dugun hizkuntz forma txertaturik agertzen den egoerarik egokiena aukeratzen dugu, ikusentzutezkoa posible den guztietan erabiliz, eta besterik ezean entzutezkoaz edo hormirudiaz baliatuz.

- *Bigarren pausoa*

Landu nahi dugun hizkuntz formaren beharra sentiaraziko diegu ikasleei, beti ere kontutan izanik aurreko pausoen entzuna dutela hizkuntz forma hori.

- *Hirugarren pausoa*

Pauso honen helburua aurreko pausoen azaldutakoa finkatzea izango litzateke. Horretarako, irakasleak orain arte ahoz landutakoa arbelean idatziko du, bai galdera, bai erantzuna. Orain arte ez zaie ikasleei koardernoa irekitzen utziko; baina irakasleak ereduak arbelean idatzi ondoren, bost minutu utziko zaizkie arbelekoa kopiatzeko eta pixka bat erreflexionatzeko.

- *Laugarren pausoa*

Idatziz jaso dutenean, galdera-erantzunak egiten jarraituko dugu, azaldutakoa ahoz eta analitikoki ongi finkatua gera dadin, hau baita pauso honen helburua.

- *Bostgarren pausoa*

Pauso honen helburua hizkuntz forma hori egunero ematen den egoera batean txertatzea izango da. Beraz, analitikoki ongi finkatua daukagunean ariketa osotuago batera pasako gara. Bideoan hizkuntz forma hori

agertzen den egoera egokiren bat izanez gero, hau eredutzat emanik, antzekoa asmatzeko eskatuko diegu, beti ere hitzak edo egoera apur bat aldatzeko eskatuz.

• *Seigarren pausoa*

Pauso honen helburua egun batean azaldu eta landutakoa birpasatzea da. Gure ustez, birpasa oso garrantzitsua da edozein hizkuntza forma azaldu eta landu ondoren. Horregatik saiatzen gara aurreko egunean emandakoa hurrengo egunean gogorarazten, posible bada joko-antzeko zerbaiten bidez.

• *Zazpigarren pausoa*

Pauso hau etxeko ariketei dagokie. Etxeko ariketak modu askotakoak izan daitezke. Etxean egindako ariketa hauek hurrengo egunean klasean zuzenduko ditugu. Komeni da egunero ariketaren bat ematea etxean egiteko; besterik ez bada, euskaraz une batez bada ere klasetik kanpora gogora daitezten.

Beste puntu batera pasatuz, kontutan izan behar da irakasle eta ikasleen arteko elkarrengana nahiko nabarmena dela. Hasiera batean iniziatiba osoa irakasleak badu ere, ikaslearena gehitzen doa denbora aurrera doala. Baita ikasleen arteko elkarrengana ere; hau oso garrantzitsua da, ariketarik gehienak binaka edo taldeka egitekoak baitira. Hauen arteko harremanak kurtsoa aurrera doan neurrian estutuz joango dira.

Klasean euskara ikasteko giro egokia sor dadin, oso komenigarria da ikaslearen sentipenak kontutan hartzea. Irakasleak momentuoro egon behar du ikaslearen sentipenak eta erreakzioak behatzen. Honetarako, irakasleak klasea bukatu ondoren, eman duen klasearen azterketa bat egitea komeni da, ikasleen sentipenak eta portaera aztertuz. Dena dela, irakasleak momentuoro garbi izan behar du zein den bere klaseen helburua; ezin diezaieke beti ere ikasleen sujerentziei kasu egin.

Gure klaseetan erabili eta landuko den euskara kolokiala izango da; beraz, ez diogu literatur hizkuntzari lekurik eskainiko. Euskal kulturari ere bere tokia eman behar zaio; mailak aurrera doazen neurrian erreferentzia kulturalak ugariagotzen joango dira.

Talde hauetan, klase barruan gehien azpimarratzen diren trebetasunak mintzamina eta ulermena izango dira.

Irakasleak lehenengo egunetik euskara besterik ez du erabiliko klaseak ematerakoan; dena dela, zilegi da gaztelera erabiltzea zenbait hitz klabe e.a. argitzeko.

Ikasleen erroreari erantzuteko, lehenik irakasleak akatsa azpimarratuko du eta hau egin duenari emango dio zuzentzeko aukera; berak jakingo ez balu, bere ikaskideen txanda izango litzateke. Hauek ere jakingo ez balute edo oker zuzenduko balute, irakaslearen txanda izango litzateke; honek, zuzendu ondoren, azalpena emango luke.

### *Ebaluatzeko irizpideak*

Puntu honen inguruan esan beharra dago ikastalde hauek antolatu zirenean ikasleek jartzen zuten baldintzetariko bat azterketarik ez egitea zela. Garbi dago ikasle guztiak ebaluatu behar direla, azterketa baten bidez edo beste medio batzuk erabiliz.

Ikasle hauek azterketari dioten beldurra ikusirik, eskolordu normal batean ikasleen ebaluaketa objetiboa emango zigun froga bat txertatzea erabaki genuen; eta, gainera, egun horretan ohizko irakasleak eman beharrean eskola, maila berean zebilen beste irakasle batek ematea.

Irizpideak aipatzerakoan esan dezakegu talde orokorretarako ezarrita dauden irizpideak izango direla guraso-taldeetan erabiliko direnak.

### *Materiala*

Talde hauetan erabiltzen den materialak ez du berezitasun handirik. Gehienbat eskalategian dagoen materiala erabiltzen da; dena dela, gai alde-tik egokiak ez diren ariketak moldatu egiten dira, talde hauetara egokitu-tuz. Talde hauetarako espreski erosi den materiala honako hau izan da:

- Ipuinak, gehienak klasikoak.
- Jokoak: orduak, hilabeteak e.a. ikasteko.
- Euskara Mailaka berritua.

Materialari dagokionean, garrantzitsua da honek ezaugarri berezi batzuk izatea:

- Ikusentzutezkoa izan behar du ahal den guztietan (“Bai horixe”).
- Horrelakorik ezean entzutezkoa edo ikustekoa (kaseta, hormirudiak, argazkiak e.a.).
- Joko eran antolaturiko ariketak oso baliagarriak gertatzen dira, joko-koen bidez hainbat egitura behin eta berriro errepikatuko baitituzte aspertzera iritsi gabe.
- Klasean erabiliko diren ariketa analitikoak ere beti ahoz lantzekoak izango dira.
- Erabiltzen den materialak, ahal den guztietan, euren inguruarekin eta interesekin lotua egon beharko du.

Aipatu berri ditugun ezaugarrien artean, garrantzi berezia du materialaren grafikotasunak. Oso garrantzitsua da materiala grafikoa izatea, ikasle hauen abstrazio-maila eskasa izanik oso erabilgarria gertatzen baita material-mota hau.

### **Balorapena**

#### *Ordu-kopurua*

Ordu-kopuruari dagokionean, esan daiteke transmisio-kanpainako taldeak bi multzotan bana daitezkeela: asteen hamar eskola-ordu jasotzen zituztenak eta asteen zortzi eskola-ordu jasotzen zituztenak. Bi multzo hauen artean nabarmendutako aldeak handiak dira:

- Hamar eskola-ordu jasotzen zituztenek ikasturtean zehar 312 ordu

jaso zituzten; beraz, ikasle hauen erritmo motela kontutan harturik, esan dezakegu urrats bat eta erdi, ia bi urrats egiteko gai izan zirela.

- Zortzi eskola-ordu jasotzen zituztenek astean zehar, berriz, ikasturte osoan 252 ordu jaso zituzten, eta urrats bat burutzeko gai izan ziren.

Batetik urratsen arteko alde logikoa dago, baina bestetik bigarren multzoko ikasleei hutsunea ugari geratu zaie. Ez dute lortu lehenengo multzoko ikasleek urrats hori amaitzean zuten mintzamen- eta ulermen-maila.

Astean zortzi ordutako erritmoan ibili diren talde hauen artean, batzuek ostirala izan dute jai eta beste batzuek asteazkena. Esan beharra dago ondorioak antzekoak izan direla. Ostirala jai zuten taldeetako ikasleak astelehenean erabat deskonektaturik etortzen ziren klasera eta birpasa sakon bat egin behar izaten genuen; hala ere, gauzak ez ziren erabat menperatuak geratzen, eta horrela asteak joan eta asteak etorri. Ikasturtearen bukaeran jende honek eman zuen maila oso zen kaxkarra.

Asteazkena jai zuten taldeetako ikasleak, berriz, asteari erritmoa hartu orduko eten egiten zen. Erritmo-apurketa honek denbora galtze dextentea suposatzen zuen, ostegunean berriro martxa hartu behar izaten baitzuten.

Laburbilduz, esan daiteke gure euskaltegian erritmo hauek ez dutela batera ondorio onik izan, eta 91-92 ikasturterako ez dela onartu astean zortzi ordu egingo duen transmisio-kanpainako talderik, 90-91 ikasturtean zortzi ordutako erritmoan ibiliak hamar ordutako erritmora pasa direlarik. Gure iritziz, hobe da egunean ordu t'erdiko klasea izatea baina egunero eta ez bi ordutakoa baina astean lau aldiz.

#### *Markatutako helburuak*

Kanpaina honen helburuak zeintzuk ziren kontutan izanda, esan daiteke helburu hauek bete egin direla. Ikasle hauek euskararekiko kontzientzi maila bat lortu dute, gai dira euren umeei ulertzeko, eta baita mintzatzeko ere.

#### *Programaketa*

Bi ikasturte burutuak dira jadanik. Lehenengo ikasturterako prestaturiko programaketa ez zen erabat bete, gehienbat ikaslego honen ezaugarriak eta ikasteko erritmoa ezagutzen ez genituelako. Bigarren ikasturterako programaketa, berriz, askoz gehiago hurbildu zen jende honen erritmoa, eta programatu bezala bete zen.

#### *Materiala*

Materialen balorapenari dagokionez, esan daiteke lehenengo urratserako dugun materiala oso ona dela, egokia eta baliagarria gainera. Material honi esker ikasleek mintzamenean eta ulermenean oso maila polita lortzen dute. Material honen oinarria “Bai horixe”ko zintak dira. Baina material honek lehenengo urratsak irauten duen bitartean dirau.



Bigarren urratsean “Bai horixe”ko materialak jarraipenik ez duenez, zenbait arazorekin topo egiten dugu. Hutsune hau diapositiben bidez konpontzen saiatu gara. Dena dela, urratsak aurrera doazen neurrian, ikasleen irudirik gabe ulertzeko gaitasuna handituz doa, eta gero eta garrantzi txikiagoa du material grafikoak; eta ahoz esandako hitzak eta idatzitakoak garrantzia hartzen doaz.

### *Ikasleen jarrera*

Kasurik gehienetan ikasleen jarrera ezin hobea da. Oso ikasle finak izaten dira eta ahalegin handiak egiten dituzte euskara ikasteko. Gainera, oso konstanteak izaten dira eta irakaslearen aholku eta aginduak zuzenki betetzen dituzte.

\* \* \*

Besterik gabe gure esperientzia norbaitentzat lagungarri izan daitekeela koan, aukera hau aprobeztatu nahi dut beste euskaltegi batzuk ere beren esperientziak argitaratzera anima daitezen.